

BEHIN-BEHINEKO ERABAKIA, 2025eko APIRILAREN 8koa, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, 2025/2026 IKASTURTEAN IKASTEKO MUGIKORTASUN NAZIONALERAKO DEIALDIAN –SICUE PROGRAMA– PLAZAK BEHIN-BEHINEAN ESLEITZEKO.

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordearen 2025eko urtarrilaren 22ko erabakiaren bidez argitaratu zen 2025/2026 ikasturtean ikasteko mugikortasun nazionalerako deialdia –SICUE programa–.

Erabakian bertan eman zen eskaerak egiteko epearen berri, zeina 2025eko otsailaren 28ra arte egongo baitzen zabalik.

Epea bukatutakoan, deialdian aurreikusitako plazak esleitu ziren, oinarrietan adierazitako hautaketa irizpideen arabera, eta esleipenen behin-behineko zerrendak sortu ziren (erabaki honi erantsita).

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleei plazak **esleitzea**, oinarritan argitaratutako esleipen irizpideen arabera. Esleipenak I. eranskinean jasota daude (I. eranskina: Onartutako eskabideen zerrenda).

BIGARRENA.- Parte hartzeko baldintzak bete arren plazarik lortu ez duten parte hartzaileen **zerrenda egitea**, merezimenduen hurrenkeraren arabera, esleitutako plazaren bat libre geratuz gero, beste izangaiei eskaini ahal izateko. Parte hartzaileen talde hori II. eranskinean dago jasota (II. eranskina: Plazarik gabeko eskabideen zerrenda).

HIRUGARRENA.- Deialditik **kanpo uztea** deialdian edota ikastegietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak. Onartu ez diren eskabideen zerrendak III. eta IV. eranskinetan jasota daude; alde batetik, deialdiaren baldintza orokorrak betetzen ez dituztenak (III. eranskina: Araudiaren arabera baztertutako eskabideen zerrenda) eta, bestetik, ikastegiei ezarritako betekizunak konplitzen ez dituztenak (IV. eranskina: Ikastegiko koordinatzaileak baztertutako eskabideen zerrenda).

LAUGARRENA.- Parte hartzaileak ez onartzeko arrazoiak argitaratzea, arrazoiaren koadro batean oinarrituta (V. eranskina: Baztertzeko arrazoiak).

BOSGARRENA.- 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 82. artikuluan xedatzen duenez, HAMAR (10) eguneko epea zabaldu da ikasleek alegazioak aurkezteko eta egoki irizten dituzten dokumentu eta justifikazioak eransteko. Honako egoera hauek argudia daitezke:

- a) Akats bat egon izana, aurkeztutako dokumentuak oker interpretatu direlako edo espediente akademikoa oker baloratu zelako.
- b)
- c) Erabakia hartzeko funtsezkoak diren dokumentu berriak edukitzea eta aurkeztea.
- d) Balio zalantzarik gabekoak diren dokumentuek erabakian eragin izana.
- e) Behar bezala justifikatutako beste egoera batzuk.

Alegazioak Fakultateko koordinatzailearen bitartez aurkeztu ahal izango dira, edota idatziz, **UPV/EHUren erregistro elektronikoen bitartez**, "SICUE Programa - Alegazioak" atalean (<https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index>), eskaeraren hartzaile gisa hau hautatuta: **Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza, Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetako bat erabili beharko da: a) Izenperen ziurtagiri digitala, b) UPV/EHUko langileen txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa, edo d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren (FNMT-CERES) ziurtagiria.

Era berean, honako leku hauetan ere aurkeztu ahal izango dira alegazioak: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistroaren laguntza bulegoetan, aurrez aurre, hartarako gaitasuna duen funtzionario baten bitartez, c) Correosen bulegoetan (gutun ziurtatua, lehen orria Correosen bulegoan zigilatuta), eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Epea bukatutakoan, behin betiko erabakia argitaratuko da.

Sin./Fdo. M. Gotzone Barandika Argoitia

TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE TRANSFERENCIA E INTERNACIONALIZACIÓN